

Funtsezko elkarteak

Gure proiektuak babesa behar du hazi egiteko, hori dela eta hainbat enpresen eta elkarten laguntza beharrezkoak ditugu.

EDONOR(A) proiektua ingurumenarekin, sozialki eta kirolarekin erlazionatuta dagoenez, mundu horretan murgilduta dauden hainbat enpresekin harremanetan jarriko gara. Beraiekin aliantzak egingo ditugu onodrengo arrazoiak direla: negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko.

Lehenik eta behin, bizikletak Decathlonen erosiko ditugunez, honek, laguntza emango digu erosketen kudeaketan. Gure hornitzaile nagusia izango da eta sektorean duen esperientziaz baliatuta, gure proiekturako egokienak diren bizikletak erosiko dizkiegu. Beste aldetik, energia generatu eta metatu egiten duen kutxatxoa Amazonetik erosi egingo dugu, honek ere diru-laguntzak emango dizkigu, izan ere, hornitzaile oso garrantzitsua da eta enpresa txikiak laguntzeko helburua dutenez, ezinhobeto datorkigu.

Gasteizko Udaletxeak ere, bere laguntza emango digu, hasi berriak garenez, bultxadatxo bat emateko. Izan ere, Udaletxeak urtero hasi berri diren enpresa, merkataritza-gune eta saltokiei diru-laguntzen deialdi bat egiten du babesa emateko.

Gasteizko Udaletxearen moduan, Gasteizen dauden hainbat komertzio edo enpresa txikiak ere kontuan izanda, Laku, Iris Fotokopiagailua, Orbea, Txirrinduz, Aupa taberna, Kirolak Gasteizko arropa denda, Sakakortxo taberna eta La Vitoriana, izeneko enpresekin harremanetan jartzea pentsatu egin dugu. Izan ere, enpresa hauek Gasteizen eskaini egiten dute haien zerbitzua, hori dela eta, tokiko ekonomia sustatzeko asmoarekin bata besteari laguntzea idea zoragarria dela deritzogu. Guk, komertzio hauen propaganda egingo genuke, gure bezeroei aditzera emanez eta hauek bertara bultzatuz; "trukean" haiek laguntza ekonomikoa apur bat emango digute, lokala, soldatak eta beharrezkoak ditugun gastuei aurre egiten laguntzeko.

Gure enpresarekin elkarlanean aritu egiten diren beste elkarteak honako hauek dira: Montes Solidarios eta Iberdrola elektrizitate ekoizlea. Gure bezeroek, bizikletak erabili ondoren sortutako energia Iberdrola izeneko elektrizitate ekoilearen enpresari saldu egingo diogu, eta honekin lortutako dirua, gure bigarren elkarteari bideratuko dugu. Beraz, ezinbestekoa da haiekin elkarlanean aritzea.